

SARRERA

- Organo jurisdikzional motak: epaitegi eta auzitegiak
- Pertsonal jurisdikzional motak: epailea, magistratua eta AGko magistratua
- Epaille eta magistratuak = autoritate = estatutu zehatza (BJLOren IV. liburua)
- Epailleen jarduera eraentzen duten printzipio nagusiak:
 - EK 117.1 art.: “Justizia herriarengandik dator, eta Botere Judiziala eratzen duten epaille eta magistratuek administratzen dute, Erregearen izenean. Epaille eta magistratuok independente, mugiezin eta erantzule dira, eta legearen agintera baino ez daude menderatuak”.
 - Inpartzialtasuna
 - Independentzia eta legearen menpekotasuna
 - Mugiezintasuna
 - Erantzukizuna

I. PERTSONAL JURISDIKZIONALAREN ESTATUTUA

Sarrera:

Nahiz eta funtzio jurisdikzionala egikaritu *ez daude* karrera judizialaren barnean (BJLO 298.2 art.):

- Bake Epailleak:
 - Ez dute zuzenbidean lizentziatuak zertan izan
 - Udalaren osoko bilkurak hautatu gehiengo absolutuarekin
 - JANaren Gobernu-Salak izendatzen ditu, 4 urterako.
- Ordezko magistratuak/epailleak eta aldi baterako hornikuntza-erregimeneko epailleak (BJLO 200-202; 212.2 eta 428-433 art.).

Espanian epaille karrera bakarra; epaille gorputz bakarra
Karreraren 3 maila (BJLO 299 art.): a) epailea, b) magistratua eta c) AGko magistratua

1. Karrera judizialean sartzea

a) Oposizio askea (BJLO 301 art.+)

Epaille-kategoriatik sartzen da: Oposizioa gainditu eta Eskola Judizialean kurtso teoriko-praktikoa burutu ondoren

Oposizioa aurkezteko baldintzak (BJLO 302 art.):

- Espainiako nazionalitatea izan
- Adin-nagusia
- Zuzenbidean Lizentziatua
- Legeak aurreikusitako ezgaitasun-arrazoirik ez izatea

b) Merituen lehiaketa

Magistratu kategoriatik sartzen da karrera judizialean + Eskola Judiziala Lehiatzeko baldintzak:

- gaitasun onartua
- jarduera juridikoan 10 urte baino gehiago izatea

Lanpostu horietako 1/3 JAko Letratuei erreserbatzen zaie (BJLO 301.5 eta 311.1 IV art.). Kasu honetan espezialitateen bitartez sar daitezke (BJLO 311.3 art.).

Kasu berezia: Fiskaltzako kideak Administrazioarekiko Auzietako eta lan-arloko ordenetako espezializazio-probetara aurkez daitezke (BJLO 311.2 art.).

c) BJKNren izendatze diskrezionala. Bi kasutan:

- o JANetako zigor eta zibil saletako magistratuak:
3 magistratutik BJKNk 1 izendatzen du Autonomi Erkidegoen legebiltzarrek aurkeztutako ternen artean.

Hautagaien baldintzak:

- Prestigio ezagutuko jurista izatea
- Autonomia Erkidegoan 10 urte baino gehiagoko jarduera profesionala izatea (BJLO 330.4 eta 331).

- o AGko magistratuak

AGko Saletako 5 postutik 1 aukeratzen du BJKNk diskrezionaltasunez.

Baldintzak:

- Prestigio ezagutuko jurista edo abokatua izatea
- 15 urte baino gehiagoko jarduera profesionala izatea, lehentasunez, Salaren ordena jurisdikzionalako adar berean (BJKO 343 eta 345-347 art.).

2. Kategoria igoera

a. Epaille → magistratu

- o Antzintasuna (BJLO 311.1, 311.2 art.)

Horrela 4 hutsunetik 2 betetzen dira

- Zerrendan lehen postuetan dauden epaileekin betetzen dira

- Baldintzak: Epaille-kategorian gutxienez 3 urtez jardun izana

- o Hautatze edo espezializazio-probak (BJLO 311.1, 311.2, 311.5 eta 312.1 art.)

4 postutik 1 betetzen da froga hauen bitartez

- Baldintza: zerbitzuan 2 urte bete izana

- Desberdindu behar:

a) Hautatze-probak:

- Zibil eta Zigor ordenei buruzkoak
- epaileei zuzenduak
- hautagaien gaitasuna, formazioa eta ezagutza juridikoak baloratzen dira

b) Espezializazio-probak:

- Administrazioarekiko auzi eta lan-arloko ordenei buruzkoak
- epaile, magistratu eta Fiskalei zuzendutakoak
- aipaturiko ordena jurisdikzionalen ezagutza juridikoak baloratzen dira

b. Magistratu → AGko magistratu

AGko magistratu guztiak BJKNk izendatzen ditu diskrezionalki

- 4/5 karrera judizialaren kideen artean.

a) 2 hautatze-proben edo espezializazio-proben bitartez igo dutenen artean, bi baldintza beteta: karreran 15 urteko antzintasuna izatea eta 5 magistratu moduan.

b) 2 magistratu gisa jarduten dutenen artean; baldintzak: magistratu kategorian 10 urte eta karrera barruan gutxienez 15 urte izatea.

- 1/5 prestigidun juristak, 15 urte baino gehiagoko jarduera profesionala dutenen artean.

3. Plaza zehatzen hornidura

a. Postu jurisdikzionalak: antzintasuna eta eskalafoian egoerarik onena duenak aukeratzen du.

b. Postu gubernatiboak: AN, JAN eta PAetako presidentek → BJKNak aukeratzen ditu 5 urterako, berriztu daiteke.

Salbuespena: AG (modu diskrezionalean aukeratu jubilatutako arte)

II. INPARTZIALTASUNA

1. KONTZEPTUA

GATAZKA → elkarren kontra dauden bi alderdi hirugarren batengana jo = inpartziala (ez da gatazkaren parte)

- Inpartzialtasuna kasu zehatzari dagokio
- Inpartzialtasunak izaera subjektiboa du
- Legeek inpartzialtasuna objektibizatuko dute

2. BERME SISTEMA (BJLO 217-228 eta PZL 102-119)

ABSTENTZIOA (BJLO 217. art.): EPAILEA: Legeak aurreikusitako arrazoiren bat duen epaile/magistratuak auziaren ezagutzatik aldentu

ERREKUSAZIOA (BJLO 218. art.): ALDERDIAK: Legeak aurreikusitako arrazoiak badaude, eta epaile/magistratuak bere abstentzioa aurkezten ez badu → alderdiek errekusatze eskubidea

- Arrazoiak (BJLO 219. art.):

- Ezkontzako lotura edo parekoa den egitatezko egoera, odol zein ahaidetasun-lotura (4^o/2^o)
- Prozesuko alderdiren batekin adiskidetasun estua edo etsaitasun nabaria
- Auzian zuzeneko edo zeharkako interesa izatea

- Alderdietako baten salatzailea edo akusatzailea izatea edo honela jardun izana
 - ...
- Abstentzioa eta bere prozedura (BJLO 221-222 art.)
- Epaille edo magistratuak berak, bere inpartzialtasuna kolokan jar dezakeen egoera baten aurrean, auzia erabakitzeari utzi beharko dio.
 - Epaille edo magistratuak arrazoia jakinaraziko dio osatzen duen Atal edo Salari, edo bere kasuan, bere ebazpenen kontrako errekurtsioak ezagutzen dituenari. Horiek abstentzioari buruz erabakiko dute, eta bitartean prozesua etenda geratuko da. Arrazoia onartuz gero, abstentzioa aurkeztu zuenak autoa emango du, auziaz behin betikoz aldentuz eta ordezkaturako duenari jarduerak bidaltzea aginduz.
 - Abstentzio-arrazoia onartzen ez bada, edo epaille edo magistratuak abstentzioa aurkezten ez badu alderdiek salatu beharko dute errekusazioaren bidez.
- Errekusazioa eta bere prozedura (BJLO 223-228; PZL 107+)
- Errekusatzea alderdiek aurkeztu beharko dute.
 - Arrazoia ezagutu bezain pronto, alderdiek errekusatzea aurkeztu beharko dute; 10 eguneko epea izango dute epaille edo magistratuaren izena jakinarazten dien lehen ebazpena notifikatzen zaienetik.
 - Errekusatze idazkiak arrazoiak + frogak bilduko ditu. Aurkeztean prozesua behin-behinean etengo da, arrazoiari buruz erabaki arte (salbu: zigor ordena)
 - Idazkia prozesuko gainerako alderdiei helarazten zaie honi atxikitzeko, aurka egiteko edo beste arrazoiaren bat ezagutzen duten adierazteko (BJLO 223.2 eta 3 art.). Epaille edo magistratu bat izendatzen da arrazoiari buruzko instrukzio edo ikerketaz arduratzeko (BJLO 224 eta PZL 109 art.). Erabakitze errekusatuaren txostena hartuko da kontuan (BJLO 225 1.II art.). Ikerketa amaituta, jardun den guztia salari edo, bere kasuan, epaille bati helaraziko zaio, errefusatze-intzidentea erabakitze (PZL 110 eta PZL 227 art.).
 - Arrazoia onartzen bada, epaille edo magistratua epaiketatik kanpo geratuko da behin betikoz eta beste batek ordezkaturako du prozesuarekin jarraitzeko (PZL 112.2 eta BJLO 228.2 art.).
 - Onartzen ez bada, errefusatutako epaille edo magistratua auzia ebazten jarraituko du eta errekusazioa aurkeztu zuen alderdia intzidente honen kostuak ordaintzera kondenatuko da; gainera, isun bat ezarri ahal zaio fede txarrez jardun badu (isuna: 180-6000 € artekoa) (PZL 112.1 eta BJLO 228.1 art.).

III. INDEPENDENTZIA ETA LEGEAREN MENPEKOTASUNA

1. KONTZEPTUA

- Ek 117.1 art.: “Justizia herriarengandik dator, eta Botere Judiziala eratzen duten epaile eta magistratuek administratzen dute, Erregearen izenean. Epaile eta magistratuok independente, mugiezin eta erantzule dira, eta legearen agintera baino ez daude menderatuak”.
- BJLO 1. art.: “Justizia herriarengandik dator, eta Botere Judiziala eratzen duten epaile eta magistratuek administratzen dute, Erregearen izenean. Epaile eta magistratuok independente, mugiezin eta erantzule dira, eta Konstituzioaren eta legearen aginpidearen mende baino ez daude”.

Independentzia: epaile eta magistratuek funtzio jurisdikzionala era egokian burutu ahal dutela ziurtatzen duen printzipioa. Independentzia hori bermatzeko, epaile eta magistratuek legearen inperioaren menpe soilik jarduten dute.

“LEGEA = epaile eta magistratuak ordenamendu juridiko osoaren menpe daude (EK, lege, eta gainerako ordenamendu juridikoaren menpe)

Lege konstituzionalaren menpe = Epaileak aplikatu behar duen legearen konstituzionaltasunari buruzko zalantzak baditu, ez du aplikatuko + KAra jo

Zalantza hori erregelamendu baten gainekoa bada, ez du aplikatuko + ez du konstituzio-kontrako arazorik aurkeztu beharko.

2. INDEPENDENTZIA ZAINTEKO LEGEAK AURREIKUSITAKO BERMEAK:

A. Bermeak gizartearen aurrean

- i. Baldintzak: karrera judizialean sartzeko baldintzak (BJLO 302. art.)
 - Espainiarra izatea
 - Adinez nagusia
 - Zuzenbidean lizentziatua
 - Legeak ezarritako ezgaitasun-arrazoirik ez izatea

ii. Debekuak

1. EK 127.1 art.: “Epaile eta magistratuek, eta orobat fiskalek, ezin beteko dute bestelako kargu publikorik jardunean diren bitartean, eta ezin izango dira ezein alderdi politiko nahiz sindikatutako kide izan. Legeak ezarriko du epaile, magistratu eta fiskalen elkartzeko profesionalerako sistema, eta hartarako moduak zehaztuko ditu” + (Ikus. BJLO 401. art.)

Epaile eta magistratuek (Fiskalek ere) ezin dute:

- Beste kargu publiko batzuetan jardun
- Alderdi politiko edo sindikatu baten bazkide izan
- Honek ez du esan nahi askatasunez elkartzeko eskubiderik ez dutenik. Artikuluak legera bidaltzen du epaile, magistratu eta fiskalen elkartze profesionalaren sistema eta modalitateei dagokienez (*ikus. BJLO 401 art.*).

2. BJLO 395. art.

- Botere, autoritate eta funtzionario publikoei edo Korporazio Ofizialei beren egintzengatik zorianak edo gaitzespenak zuzentzea.
- Botere Judizialeko kide moduan izaera judiziala ez duten ekitaldi edo batzar publikoetan agertzea, Erregeari laguntzeko edo BJKNren berariazko baimena dagoenean izan ezik.
- Legegintzarako edo toki-hauteskundeetan parte hartzea, boto pertsonala ematean izan ezik.

iii. Ezgaitasunak

1. Ezin dira karrera judizialean sartu (BJLO 303. art.)
 - Funtzio judiziala betetzeko ezindu fisiko eta psikikoak
 - Doluzko delituagatik kondenatuak, birgaitzea lortu ez duten bitartean
 - Doluzko delituagatik prozesatuak edo beraien kontrako egozketa dutenak, absolbitzen ez dituzten bitartean edo largespen-autoa ematen ez den bitartean
 - Eskubide zibilen egikaritze osoa ez dutenak
2. Karrera judizialaren ezgaitasun arrazoiak (BJLO 379. art)
 - Uko egitea
 - Espainiako nazionalitatea galtzea
 - Karrera judizialek banatzearen diziplina-zigorra
 - Doluzko delituagatik askatasun-gabetze zigorra jasotzea
 - Ezgaitasun arrazoi batengatik
 - Erretiroa/jubilazioa

iv. Bateriaezintasunak: Epaile edo magistratuaren kargua soldatapeko ia lanbide edo enplegu guztiekin (publiko edo pribatua) bateraezina da.

1. EK 127.2 art.: “Legeak ezarriko du botere judizialeko kideen bateraezintasun-araubidea, eta haien independentzia osoa segurtatu beharko du araubide horrek”.
2. BJLO 389 art.: “Epaile- edo magistratu-kargua bateraezina da (...)”
 - Botere Judizialek kanpo dagoen jurisdikzio batean jardutea
 - Edozein motatako enpleguak auzitegi eta epaitegietan
 - Abokatu eta prokuradorea izatea,
 - Aholkularitza juridikoan jardutea
 - Merkataritza-jarduera izatea... (ikus. BJLO 389 art.)
 - SALBUESPENAK:
 - Irakaskuntza
 - Ikerkuntza zientifikoa
 - Literatur ekoizpena edota sorkuntza artistikoa, zientifikoa eta teknikoa (+bertatik ondorioztatutako publikazioak)

B. Bermeak estatuaren gainontzeko botereen aurrean

i. Bermeak botere legegilearen aurrean

1. EK 76 art.: “Kongresuak eta Senatuak, eta, hala badagokio, bi ganberek batera, ikerketa-batzordeak osa ditzakete interes publikoko edozein gaitarako. Batzordeen ondorioek ez dute lotura-indarrik izango auzitegientzat, eta ez diete eragingo ebazpen judizialei, baina Ministerio Fiskalari jakinaraz dakizkioke ikerketaren emaitzak, hark bidezko akzioak bidera ditzan, hala dagokionean”.
2. EK 122 art.: “Botere judizialaren lege organikoak zehaztuko du epaitegiak eta auzitegiak nola osatu behar diren, nola jardun behar duten eta nola gobernatu behar diren; halaber zehaztuko du zer estatutu juridiko dagokien karrerako epaile eta magistratuei, kidego bakar bat osatuko baitute, eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko enplegatuei”.

ii. Bermeak botere exekutiboaren aurrean

1. EK 117.1 art. (Justizia herriarengandik dator, eta Botere Judiziala eratzen duten epaile eta

magistratuek administratzen dute, Erregearen izenean. Epaille eta magistratuok independente, mugiezin eta erantzule dira, eta legearen agintera baino ez daude menderatuak), 117.2 art. (Epaille eta magistratuak ezin kenduko dira kargutik, ez aldi baterako ahalgabetu, ez lekualdatu eta ez erretirarazi, ez bada legeak aurreikusiriko kusetakoren batengatik eta han jasotako bermeekin) eta BJLO 15 art. (Epaille eta magistratuak ezin kenduko dira kargutik, ez aldi baterako ahalgabetu, ez lekualdatu eta ez erretirarazi, ez bada lege honek aurreikusiriko kusetakoren batengatik eta han jasotako bermeekin).

2. EK 122.2 art.: “Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia da beraren gobernu-organoa. Lege organikoak zehaztuko ditu haren estatutua eta kideen bateraezintasun araubidea eta eginkizunak; bereziki, izendapenei, maila-igoerei, ikuskatzei eta diziplina-araubideari dagokienez”.

C. Bermeak goiko organoen aurrean

i. Mugiezintasuna (EK 117.2 art.)

BJKNk ezin izango ditu epaille eta magistratuak beren karguetatik lekualdatu, legeak aurreikusitako arrazoiengatik ez bada

ii. Independentzia (BJLO 12. art.)

- Epaille eta magistratu guztiak independenteak dira, bai elkarren artean, baita BJren gobernu-organoei dagokienez ere (BJLO 12.1 art.).

- Goragoko epaille eta magistratuek ezin izango dute zuzendu beheragokoek egindako ordenamendu juridikoaren interpretazioa edo aplikazioa, errekurtsoen bitartez ez bada (BJLO 12.2 art.).

- Era berean, goiko epaille eta magistratuek zein BJKNk, ezin dizkiete ordenamendu juridikoaren interpretazioari edo aplikazioari buruzko instrukziorik eman beheragokoei, funtzio jurisdikzionala betetzen duten bitartean (BJLO 12.3 art.).

- *Ikus.* BJLO 417.4 art. (arau hauste oso larria)

D. Bermeak prozesuko alderdien aurrean = Inpartzialtasuna

i. Abstentzioa (BJLO 217. art.)

ii. Errekusazioa (BJLO 218. art.)

IV. MUGIEZINTASUNA (EK 117.2 art.)

EK 117.2 art.: “Epaile eta magistratuei dagokienez, ezin da banatze, etete, lekualdatze edo erretirorik gertatu, legezko arrazoien ondorioz eta legean ezarritako bermekin ez bada”.

BJKNk ezin izango ditu epaile eta magistratuak beren karguetatik;

- banatu (separar),
 - eten (suspender),
 - lekualdatu (trasladar),
 - erretiratu (jubilar)
- legeak aurreikusitako arrazoiengatik ez bada.

Salbuespena: bake epaileak + ordezeko epaileak

EZAUGARRIAK: Epaile eta magistratuen mugiezintasuna;

absolutua da → karrera eta kategorian irauteko eskubidea dute, ezin dira lanpostu zehatzetik lekualdatu derrigorrez
iraupen mugaezina → jubilazio garaira arte

BERMEAK:

- Berme orokorrak: BJKNk ezin die epaileei norabiderik zehaztu ordenamendu juridikoaren aplikazio eta interpretazioa nola egin behar duten esanez.
- Berme zehatzak: epaile eta magistratuak ezin dira:
 - Banatu: (BJLO 379 art.)
 - Eten: behin-behinekoa eta behin betikoa (383)
 - Lekualdatu: adb. zigor diziplinarioa
 - Erretiratu: 70 urte betetzean edo ezintasun iraunkorra (385-387)

Banatzeko arrazoiak (*separar*) / karrera judizialetik kanporatzea (BJLO 379. art.):

“1. La condición de Jueces o Magistrados se perderá por las siguientes causas:

- a) Por renuncia a la Carrera Judicial. Se entenderán incursos en este supuesto los previstos en los artículos 322 y 357-3.
- b) Por pérdida de la nacionalidad española.
- c) En virtud de sanción disciplinaria de separación de la Carrera Judicial.
- d) Por la condena a pena privativa de libertad por razón de delito doloso. En los casos en que la pena no fuera superior a seis meses, el Consejo General del Poder Judicial, de forma motivada y atendiendo a la entidad del delito cometido podrá sustituir la pérdida de la condición de Magistrado o Juez por la sanción prevista en el artículo 420.1,d).
- e) Por haber incurrido en alguna de las causas de incapacidad, salvo que proceda su jubilación.
- f) Por jubilación.

2. La separación en los casos previstos en las letras b), c), d) y e) del apartado anterior se acordará previo expediente, con intervención del Ministerio Fiscal”.

Eteteko arrazoiak (suspender) (BJLO 383. art.):

“La suspensión de los Jueces y Magistrados sólo tendrá lugar en los casos siguientes:

- 1.º Cuando se hubiere declarado haber lugar a proceder contra ellos por delitos cometidos en el ejercicio de sus funciones.
- 2.º Cuando por cualquier otro delito doloso se hubiere dictado contra ellos auto de prisión, de libertad bajo fianza o de procesamiento.
- 3.º Cuando se decretare en expediente disciplinario o de incapacidad, ya con carácter provisional, ya definitivo.
- 4.º Por sentencia firme condenatoria en que se imponga como pena principal o accesoria la de suspensión, cuando no procediere la separación”.

Lekualdatzeko arrazoiak (trasladar) / diziiplina-zigor oso larriarengatik (BJLO 420.2 art.):

“Las faltas leves sólo podrán sancionarse con advertencia o multa de hasta 500 euros o con ambas; las graves con multa de 501 a 6.000 euros, y las muy graves con suspensión, traslado forzoso o separación”.

Erretiratzeko arrazoiak (jubilar) (BJLO 385. art.):

“Los Jueces y Magistrados sólo podrán ser jubilados:

- 1.º Por edad.
- 2.º Por incapacidad permanente para el ejercicio de sus funciones”.

V. ERANTZUKIZUNA

1. ERANTZUKIZUN DIZIPLINARIOA (BJLO 414-427 art.)

Epaille eta magistratuen izaera bikoitza:

- Botere Judizialaren partaideak, ahalmen juridikzionala egikaritzen dutelako
- Estatuaren langileak, funtzionarioak

Erantzukizun diziplinarioa → epaille eta magistratuen funtzioekin lotuta
Faltaren larritasunaren arabera hiru erantzukizun diziplinario maila:

A. *Falta oso larriak* (BJLO 417 art.):

- EKrekiko leialtasuna nahita urratzea, epai irmoan adierazita
- Alderdi politiko edo sindikatuetan afiliazioa, edo horien zerbitzuean enplegu edo kargua izatea
- Beste epaille edo magistratu baten ahalmen juridikzionalaren egikaritzan tartean sartzea, agindu edo presioen bitartez
- 7 egun edo gehiagoz arrazoirik gabe lanean ez agertzea
-

Zigorrak (BJLO 420. art.):

- 3 urte arteko kargua kentzea (suspensión)
- Nahitaezko lekualdatzea
- Banantzea (separación)

B. *Falta larriak* (BJLO 418 art.):

- Nagusi hierarkikoekiko errespetu falta haien presentzian, bidalitako idazkian edo publizitatez.
- Beste epaile edo magistratu baten jarduera jurisdikzionalaren egikaritzan interesatzea, edozein gomendio motaren bidez.
- Beheragokoak ordenamendu juridikoaren aplikazioan edo interpretazioan zuzentzea, errekurtsoen bitartez ez bada.
- 4 eta 7 egun bitartean arrazoirik gabe lanean ez agertzea; ikuskapen-lanak oztopatzea.
- ...

Zigorrak (BJLO 420. art.):

- 501-6000 € arteko isuna

C. *Falta arinak* (BJLO 419 art.):

- Nagusi hierarkikoekiko errespetu falta (larriak izateko inguruabarrak ematen ez direnean).
- Egun 1 eta 3 egun bitartean lanean ez agertzea.
- Ebazpena emateko legezko epeak arrazoirik gabe ez betetzea
- ...

Zigorrak (BJLO 420. art.)

- Ohartarazpena
- 500 € arteko isuna
- Edo biak batera

D. *Zigorra ezartzeko eskumena* (BJLO 421 art.).

1. *Falta arinak*:

- Ohartarazpenak: AGko, ANko edo JANetako presidentea
- Ohartarazpen+isunerako edo isunerako bakarrik: aurreko auzitegien Gobernu-salak.

2. *Falta larria*

- BJKNren Batzorde Diziplinarioa (BJLO 423.3 art.).

3. *Falta oso larria*

- BJKNren plenoa

2. *ZIGOR ERANTZUKIZUNA* (BJLO 405-410 art.)

BJLO 405 art.: "Beren karguen funtzioak egikaritzean egindako delitu edo faltengatik epaile eta magistratuen zigor erantzukizuna lege honetan aurreikusitakoaren arabera galdatuko da".

- *Legitimazio aktiboa*: Fiskaltza, kaltetua, ofenditua, herri-akzioa (edozein espainiar herritar). Dena den, epaitzeko auzitegi eskudunak ere ofizioz has dezake prozesua
- *Organo eskuduna*: AGko sala berezia (61. art.), AG eta JAN, epaile eta magistratuak = forudunak direlako.

3. ERANTZUKIZUN ZIBILA (BJLO 411-413) (ikus 296 art.)

- Gaur egun, zeharkako erantzukizuna

BJLO 296 art.: “1. Los daños y perjuicios causados por los Jueces y Magistrados en el ejercicio de sus funciones darán lugar, en su caso, a responsabilidad del Estado por error judicial o por funcionamiento anormal de la Administración de Justicia sin que, en ningún caso, puedan los perjudicados dirigirse directamente contra aquéllos.

2. Si los daños y perjuicios provinieren de dolo o culpa grave del Juez o Magistrado, la Administración General del Estado, una vez satisfecha la indemnización al perjudicado, podrá exigir, por vía administrativa a través del procedimiento reglamentariamente establecido, al Juez o Magistrado responsable el reembolso de lo pagado sin perjuicio de la responsabilidad disciplinaria en que éste pudiera incurrir, de acuerdo con lo dispuesto en esta Ley.

El dolo o culpa grave del Juez o Magistrado se podrá reconocer en sentencia o en resolución dictada por el Consejo General del Poder Judicial conforme al procedimiento que éste determine. Para la exigencia de dicha responsabilidad se ponderarán, entre otros, los siguientes criterios: el resultado dañoso producido y la existencia o no de intencionalidad”.

VI. ESTATUAREN ONDARE-ERANTZUKIZUNA (BJLO 292-297. art.)

- EK 121 art.: “Akats judizialek eragindako kalteek, baita Justizia Administrazioaren ez-ohiko funtzionamenduaren ondorioa direnek ere, Estatuaren kontu kalte-ordain baterako eskubidea emango dute, legearekin ados”

1. EZAUGARRIAK:

- Objektiboa da. Ez da kontuan hartzen epaile edo magistratuaren aldetik dolo o kulpaa dagoen.
- Zuzena. Erantzukizuna Estatuari dagokio zuzenean.
- Ahalmen juridikzionalaren egikaritzatik ondorioztatzen da.
- Bai pertsonal juridikzional, bai horren agindupean jarduten duen pertsonal ez-juridikzionalaren jardueratik ondorioztatzen da.
- Beharrezkoa da benetako kaltea egotea, ekonomikoki neurgarria eta pertsona bati edo pertsona-multzo bati dagokionez bereizgarria.
- Aipatutako hiru egoeratariko baten eta kalte-galeren arteko lotura egon behar da (kausa-ondorio lotura).

2. KASUAK

A. Akats judiziala (BJLO 292-293 art.)

- i. Akats judizialak guztiz garbia izan behar du (egitezko edo zuzenbidezkoa), gainera ebazpen irmoaren bitartez amaitutako prozesu batean gauzatu behar da.
- ii. AGren ebazpen judizialaren bitartez akatsa berariaz aintzatetsi behar da. Aintzatespena eskatzeko 3 hilabeteko epea dago.
- iii. Interesatuak Justizia Ministerioari zuzenduko dio kalte-ordainaren eskaera. Bere ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke.

B. Justizia administrazioaren ez-ohiko funtzionamendua

- i. Justizia Administrazioaren arau prozesalen aurkako jardueran oinarritu.
- ii. Kalte-ordainaren eskaera Justizia Ministerioan aurkeztu (BJLO 293.2 art.); honek, BJKNk kasuari buruz emandako txosten bat kontuan hartuta, erabakiko du. Onartu ezean, ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke.

C. Behin-behineko espexeratzea (BJLO 294. art.)

- o BJLO 294.1 art.: “Behin-behineko espexeratzea jasan ondoren, inputatutako egintza ez existitzeagatik absolbituak direnek, edo zio honen beragatik largespen askeko autoa eman denean, kalte-ordainerako eskubidea izango dute, baldin eta kalteak eragin bazaizkie”.

Hitzez-hitz, kalte-ordaina bi egoeretan izango litzateke posible; inputatutako egintza ez existitzeagatik,

- Absolutio epaia
- largespen askeko autoa

Aplikazio praktikoa oso mugatua → KAE 98/1992: interpretazio zabala egin du,

- ❖ egintza ez existitzea
- ❖ pertsonak egintzetan parte hartu ez duela frogatu bada
- ❖ Kalte-ordainaren eskaera Justizia Ministerioari zuzenduko zaio